

7- Harremanak:

Bezeroekiko harremanei dagokionez, hiru helburu nagusi dakartzagu: salmenta kopurua handitzea, bezero berriak lortzea eta lehendik genituen bezeroei eustea. Horretarako, gure enpresak honako estrategia edo harreman mota izatea dugu helburu.

Gure enpresak birziklapenarekin eta ingurumenaren ongizatearekin zerikusia dute proiektuetan parte hartzeko aukera ematen du. Horregatik, zerbitzu automatizatu eta pertsonala izango du. Alde batetik, web-gune bat proposatuko genuke, non jendea gure enpresa ezagutaraztera eman dezakegun gure birziklaketa proiektu desberdinen bidez. Eskakizunak eta bestelako aholkuak emateko aukera izango dute web-guneko atal desberdinetan, baita proiektu desberdin eta berrietan parte hartzeko aukera ere. Gainera, iritzi-gune desberdinen bitartez, bezero berriek gure produktuen erabiltzaileen iritziak irakurtzeko aukera izango dute, gauza berari buruz ikuspuntu desberdinak jasoz. Honi esker, gure bezeroekiko harreman pertsonala sendotuko genuke, beraien proposamenak kontuan hartuz eta bide batez, gure enpresa handitzeko eta hobetzeko posibilitatea izango genuke.

Gurekin harremanetan jartzeko, web-guneko atal desberdinetaz a parte, telefono zenbaki bat eta email bat (smartbinzurekin@gmail.com) eskainiko da, aipatutako bestelako informazioarekin batera, gure

enpresa hobetzen lagundu gaitzaten beraien iritziak edo bestelako zalantzak argituz, baina iritzi-gunearekin konparatuz, era pertsonal eta zuzenago batean. Era honetan, komunitate bat sortzeko aukera izango genuke, hau eratzen dute pertsona bakoitzari tratu pertsonal bat eskainiz eta gure ingurumenean gertatzen ari diren gauzetaz iritzi pertsonal bat sortu ere beraiengan.

Beraien hiri, herri edota auzoetan SmartBin-ak izateko eskakizuna egiteko atal bat ere eskainiko genuke, enpresaren mugimendua nondik egin beharko genukeen jakiteko eta jendearen nahiak kontuan hartzeko.

Beste alde batetik, sare-sozialetan ere aktiboki lan egingo dugu, eta erabiltzaileen gehiengoa publiko gaztea izanda, gure proiektuetaz berri izan dezakete eta beste ikuspuntu desberdin batzuetatik iritziak jaso ditzakegu bide batez. Honen bitartez, hurrengo belaunaldiak izango diren gazteengan eragina izatea dugu helburu gehienbat, gure gizartearen ongizatearen eraketaren parte hartzearen garrantziaz jabe daitezen eta gure proiektu berria den SmartBin-ak zelako eraldaketa izan dezakeen jakinaraztea. Beraz, aipatutakoa lortzeko sare-sozialen bitartez, facebook, instagram eta twitter bezalako sareetan gure enpresaren egiteko eta nahiak zabaltzeko aukera izango dugu profil bat irekiz.

Aipatutako guztia jarraituz, bezeroak eta guk, enpresak, onura asko lortzeko aukera izango dugu, bezeroekiko harremana hobetu, tratu pertsonal eta lagunkoi baten bidez eta gure enpresaren eraketa sendotuz, gure bezeroen iritzi eta proposamenei esker.